



Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA

## Egun bat dirugabe bizitzeko instrukzioak

DUELA EZ ASKO, kontu korrontean 0 euro nuelarik eta enplegu perspektiba hurbilik ez, gorabeheraka bizi izaten nuen egunerokoa. Pertsona maiteen babes ekonomikoak eta familiak eman izan didan babes baldintzarik gabeak lagundu zidaten beste askorentzat askoz muturragokoa den egoerari aurre egiten. Gorabeherak beraiekin ekarri ohi dituzte argi-ilunak, ilunean isolamendu mingarri zaizkigunak, baina argitara igoera sutsuagoak ere ahalbidetzen dituztenak, beharrianak eta bizinahiak bultzatuta-edo. Halako goraldi batean eta auto zaintzari loturik, dirurik gabe egun bat nola biziko nukeen imajinatzeari ekin nion. Ez, inondik ere, pobretzen eta prekarizatzen gaituzten *asterilketak* eta politikak onartu eta ongizate sozialaren ardura norbanakoagan ezarriz, baina bai, ostera, norbere autonomiatik norbere eta besteen ongintzarako bideak asmatzeko asmoz. Hauxe izan zen dirurik gabe bizitzeko instrukzioen lehen hazia, eta denborarekin, hamar puntuko dekalogoia burutu nuen. Nola biziko zenukete zuek egun bat dirurik gabe? Ez da galdera txarra aldamenekoari egiteko, irudimena bizkortzen lagun baitezake eta irudimenarekin eguneroko berri bat antolatzen. Pertsonako dirurik gabeko egun balizko bat bada hortik zehar. Gure bizitzen alaigarri eta gorazarre izan daitezkeen egunak, bai. Hemen paratzen ditut nireak gaur:

1. Irten kalera egunsentia aurretik. Kaleko horma batean pintada bat egin patxadaz. Pintadak mundua hobetzeko balio dezala, Violeta Parrak esan bezala: “*Si yo levanto mi voz, no es tan solo por gritar*”.

2. Joan lorategi publiko batera. Bilatu loreak eta zuhaitzak. *Une borretantxe* eutsi erlojuari eta erauzi. Beste denbora bat zabaltzen da orain eta denbora hau bere buruaz betetzen da akordeoi bat bezala.

3. Ibili hirian pentsamenduak ordenatzeko. Behin zalantza zenuena, gaur jarrera politikoa duzu: gauza onen gorazarre egin eta zoriona aukeratu.

4. Deitu bihotza alaitzen dizuten lagunei. Ametsak eraikitzen dituzten lagunak, amets eneak, amets zureak, amets gureak. Zazpitan etortzekoak badira, laurak direnerako pozik egoten hasiko zara.

5. Aspaldiko ezagun batek kalean geratuko zaitu. Enpleguaz galdetu eta zure ustezko zeregin gabetasunari muturra jarriko dio. Ez izan beldur eta errepikatu: “Nik ere badut nire egia eta bankero jaunarenak bezainbat edo gehiago balio du”.


6. Lapurtu gose eta egarri zarenean lapurretak minik ezin egin dionari. Edan eta jan bertatik, hau gure gizartearen ifrentzua baita, zuentzat eta guztientzat emana izan dena, amen.

7. Egin barre, are gogorik ez baduzu ere. Ireki aurrena ahoa eta gora eragin ezpain ertzei. Mugitu jauzi txikietan sabela, sorbaldak. Masailak zabalduko dira, begiak itxi eta errealitatea edertu.

8. Banketxe baten atarira joan, arnasa sakon hartu eta kantatu: “Txin-txin, txin-txin diruaren hotsa, haren gainetik entzun nahi dut gaur elkartasunaren aho-tsa”.

9. Etzan lurrean eta begiratu gaua. Izarrak dira zure zilarra. Ilargi betearen gazta zure urrea.

10. Sentitu aberats, aberats bihotz bat eta hainbeste sentimen izateaz. Lapurtzerik ez dizuten kontzientzia betiko zure duzula jakiteaz. ■



Antton Olariaga

